



**ARTIUM  
MUSEOA**



# **DEIALDIA:**

## **Ikasketa-programa - Jarduera Artistikoen Institutua (JAI)**

**KULTURA  
GARAIKIDEAREN  
NAZIOARTEKO  
ZENTROA**  
—

**CENTRO  
INTERNACIONAL  
DE CULTURA  
CONTEMPORÁNEA**  
—

**INTERNATIONAL  
CENTER OF  
CONTEMPORARY  
CULTURE**  
—

**tabakalera.eu**  
—

## 1. AURKEZPENA

Jardun Artistikoentzako Institutuaren (JAI) ikasketa-programa Tabakalerak (Kultura Garaikidearen Nazioarteko Zentroa) eta Artium Museoa (Euskal Herriko Arte Garaikidearen Museoa) bultzatutako ekimen gisa sortu da 2022az geroztik, Alzuzako Jorge Oteiza Museo Fundazioa batu da ekimenera, kolaboratzaile gisa.

Programa horrek Euskal Herrian errotutako arte garaikidearen esparruan ezagutzak transmititzeko tradizio berezia aitortzen du, aurrekontu esperimentalen testuinguruan sortu diren hainbat proiektu pedagogikoren bidez. Besteak beste, testuinguru horrek berekin dakartza, alde batetik, artearen funtzio sozialari buruzko eztabaidarako jarrera eta, bestetik, artearen praktika materialari buruzko etengabeko elkarriketa.

Aurrekari hauetatik abiatuz, JAI udako eskola gisa aurkezten da, elkartruke horiek garatzeko espazio bat ezartzeko bokazioarekin. Hori horrela, programak jatorri oso ezberdineko ahots profesionalen ekartzen ditu, praktika artistikoak mundu garaikideari begiratzeko duen ahalmen identifikatzeko eta haien lengoaien erabilerari buruzko harreman kritikoa ezartzeko gai direnak.

Jakinik artera iristeko beste modu batzuk aldarrikatzeak berekin dakarrela ezagutza-modu ugari irretarantz jartzea, eta, inolako bokaiziorik gabe gaitasunak pilatzeagatik edo espezializazioaren baten aitzindarritza bilatzeagatik, ikasketa-programa honen helburua prozesu eta metodologia artistikoetan formaren eta edukiaren, subjektibotasunaren eta materialtasunaren, eta pertzepzioaren eta pentsamenduaren artean sortzen diren harremanei balioa ematea da.

Premisa sistematiko bati jarraituz definitzen dira JAiko irakasleak: proiektua sustatzen duten erakundeek beren erakusketa-programetan parte hartzen duten artistei JAI programan irakasle izateko egiten dieten gonbidapena. Erabaki hori esparru instituzional batean gertatzen diren harreman profesionalak testuinguru hurbilera zabaltzeko nahitik sortu da, eta, hori egitean, ezagutzaren ekoizpenean eta transmisioan sakondu nahi izan da, euskal testuinguruko

artisten eta nazioartean dabilzan beste batzuen arteko trukerako espazio bat eraikiz.

Premisa horietatik abiatuta, irakasle izateko gonbidatutako pertsona bakoitzari egindako galdera beraren inguruan egituratzen da JAI: **zure lan-prozesua definitzen duen zein ezagutza praktiko zara gai beste pertsona batzuei transmititzeko?** Galdera horren erantzunak metodologia jakin bat onartzen du kasu bakoitzean, eta erantzun horien baturak, ariketa, tailer edo ad hoc proposatutako beste topaketa batzuen bidez, eskolan garatzen den programa pedagogikoa osatzen du.

Prestakuntza-saio horiez gain, JAI tailerreko gune bat da, ikaskuntza artistikoaren alderdi berezi eta zehatzak jorratzeko, eta tailerrean ematen diren prozesuen garrantzia azpimarratzen duen metodologia esperimentalaz aztertzen du.

## 2. XEDEA

Ikasketa-programa baliabide bat da, zeinak aukera ematen duen jarduera artistikoari, hizkuntzetarako beste sarbide batzuk errazteko duen gaitasunari eta horiek sortzen dituzten subjektibazio-formei buruzko elkarrizketak zabaltzeko.

Planteatutako mekanika programaren parte den artista bakoitzak prozesu horien ikuspegi berezia eskaini dezan eragiteko diseinatu ta dago, eta horrek tailerraren espazioan ehuntzen diren harremanek eta irakasleek une eta egoera bakoitzean garatzen dituzten praktika zehatzek zeharkatzen duten metodologia eraikitzen du. Vitoria-Gasteizeko Artium Museoan gauzatuko diren saioak heretsiki lotuta daude museoan abian diren programekin; aldiz, Tabakalera, programak tailerreko praktika izango du ardatz, bai eta parte-hartzaile bakoitzak prozesu espezifikoak gara ditzan ere.

Egiteko modu honen helburua da parte-hartzaileen proposamenen eta lanen garapen kritikoa sustatzea. Ildo horretan, proposamenak azpimarratzen du garrantzitsua dela parte-hartzaile bakoitzari esleituko zaion tailerrean egin beharreko lana. Partekatutako espa-

zioa izango da, eta programako tutoreek tutoretza indibiduala egingo dute.

### **3. NORI ZUZENDUTA DAGOEN**

Artearen metodologietan sakontzeko interesa dutenei edo artistei zuzendua.

### **4. PARTE HARTZEA ETA IZENA EMATEA**

JAiren Ikasketa Batzordea izango da, Tabakalera KGNZren, Artium Museoko eta Jorge Oteiza Fundazio Museoko ordezkariekin batera, tailerrerako gehienez 16 partehartzaile hautatuko dituena. Deialdia zabalik egongo da 2023ko otsailaren 10etik martxoaren 24ra. Apirilaren 4an jakinaraziko zaie hautagaiei hautatuak izan diren ala ez.

JAiren Ikasketa Batzordea honela osatuko da:

**Ibon Aranberri (artista), Oier Etxeberria (Tabakalera KGNZren komisarioa eta programa publikoen arduraduna), Catalina Lozano (Artium Museoko komisarioburua), Asier Mendizabal (artista eta Stokholmeko Royal Institute of Art erakundeko irakaslea) eta Itziar Okariz (artista).**

Programako tutoreak: **Ibon Aranberri, Asier Mendizabal eta Itziar Okariz.**

2023rako baieztatutako irakasleak: **Erick Beltrán, Anna Daucíková, Xabier Erkizia, Kiluanji Kia Henda, Julia Spínola.** Beste irakasle batzuk aurrerago iragarriko dira.

Tabakalera KGNZko, Artium Museoko eta Jorge Oteiza Fundazio Museoko programetako artista parte-hartzaileak izango dira irakasleak.

Aurreko edizioetako irakasleak (2020-2022): **Katinka Bock, June Crespo, Moyra Davey, Jon Mikel Euba, Kobe Matthys-Agency, Lily Reynaud Dewar, Camila Sposati, Zbyněk Balandran, Moyra Davey & Nicolas Linnert, Lily Reynaud Dewar, Lisa Tan, Maialen Lujanbio, Discoteca Flaming Star, Antonio Ballester, Xabier Salaberria, Chris Kraus, Jan Peter Hammer, Patricia Esquivias, María Salgado,**

Rosalind Nashashibi, Georgia Sagri, Lea Porsager, David Bestué,  
Ainara Elgoibar, Alejandro Cesarco, Mattin, Pierre Bal-Blanc,  
Isabel Herguera, Erlea Maneros Zabala eta Txaro Arrazola.

## 5. MATRIKULA ETA BEKAK

Hautatutako pertsonak **450 €** ordainduko dituzte JAiren ikasketa-programako prestakuntzarako matrikula gisa.

**BEKAK:** JAI Jarduera Artistikoen Institutuak lau ikasketa-beka esleitu ahal izango ditu deialdi honen barruan. Beka horiekin matrikula ordaintzetik salbuetsiko da, eta 900 € emango dira ostatu-gastuetarako.

Beken esleipena Ikasketa Batzordeari dagokio, eskatzaileen ibilbide artistikoaren eta egoera sozioekonomikoaren interesaren arabera. Lau beka horietako bat eskuratu nahi dutenek berariaz adierazi beharko dute parte hartzeko dossierrean, ebaluatzeko egokitzen josten duten dokumentazioa bertan adieraziz.

## 6. LEKUA ETA IRAUPENA

Prestakuntza **2023ko ekainaren 5etik abuztuaren 25era** emango da.

**Ekainaren 5etik 30era**, Artium Museoan, Euskal Herriko Arte Garaikidearen Museoan, xede horretarako esleitutako espazioetan.

**Uztailaren 1etik abuztuaren 25era**, nagusiki Tabakalerako Artisten Guneko Tailerrean.

Eremu komun horretarako sarbideaz gain, parte-hartzaile bakoitzak estudio bat ere izango du prestakuntza-aldiak irauten duen bitartean. Gainera, aurreikusten da abuztuan parte-hartzaileak Altzuzara joatea, bertan egonaldi labur bat egiteko, Jorge Oteiza Fundazio Museoarekin den lankidetzaren esparruan.

## 7. PARTE HARTZEKO BALDINTZAK

Izena emateak **formazio osora joateko** eta Artium Museoa, Tabakalera eta Jorge Oteiza Fundazio Museoko ekipamendu eta instalazioen erabilpen-arauak errespetatzeko konpromisoa dakar berarekin. Tailerreko denbora eta espazioa deialdi honen helburuetarako erabiliko da soilik, ez bestelako proiektuak gauzatzeko.

## 8. HIZKUNTZAK

Komunikazio-hizkuntza ingelesa izango da, eta euskara eta gaztelania ere erabiliko dira ikastaroko une desberdinetan; hartara, hizkuntza-aniztasuna ekoizpen-faktore gisa txertatuko da.

## 9. AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

1. CV eta biografia.
2. Motibazio-gutuna.
3. Aurreko lanen dossier digitala.
4. Parte hartzeko matrikula-modalitatearen adierazpena, eta, hala badagokio, beka-eskaera.

Dokumentazio guztia online erantsi beharko da PDF dokumentu bakar batean, gehienez ere 10MB-eko pisuarekin.

**Izena emateko epea 2023ko otsailaren 10eko 12:00etatik martxoaren 24eko 12:00ora arte [UTC+1] egongo da zabalik. Deialdiaren emaitza 2023ko apirilaren 4an jakinaraziko da.** Hautagaiak jakinarazpena egiten denetik astebeteko epea izango du egonaldia onartzen duela berresteko.

## 10. DATUAK BABESTEAK

Hautagai eta/edo parte-hartzaile guztiek, bai eta aukeratutako onuradunek ere, Tabakalerari ematen dioten dokumentazio grafikoa, testuzkoa eta/edo ikus-entzunezkoa (dela (i) eskaeraren esparruan; dela, hala badagokio (ii) oinarri hauen xede diren baliabideez hornitutako proiektua gauzatzeko) jatorrizkoa dela eta ez dituela urra-

tzen jabetza intelektualaren eskubideak. Ondorioz, Tabakalera, Artium Museoa eta/edo Jorge Oteiza Fundazio Museoaren aurrean eta/edo horien hirugarren kolaboratzaileen aurrean erantzungo dute hirugarrenek material horiekin lotuta planteatzen dituzketen jabetza intelektualari buruzko erreklamazioen aurrean, eta erakunde horiei kalte-ordainak ordaindu beharko dizkiete kontzeptu horien-gatik egin daitezkeen erreklamazioetatik erator daitezkeen kalte eta galara guztiengatik.

Oinarri hauek onartzean, onuradunek baimena ematen diote Tabakalera, Artium Museoa eta Jorge Oteiza Fundazio Museoari haiei ematen dieten dokumentazio grafiko, testuzko eta/edo ikus-entzunezkoa erabiltzeko edozein euskarritan, oinarri hauen xede diren zuzkidurak hedatzeko eta horiek jaso dituen proiektua gauzatzeko helburu bakarrarekin.

Esandako guztiak ez du eraginik izango autorearen eskubide moraletan ezta gorago aipatutako dokumentuei eta material grafiko, testuzko eta/edo ikus-entzunezkoei dagokien jabetza intelektualaren ondare-edukiaren eskubide guztien titulartasunean; horiek materiala sortu duten onuradunen esku egoten jarraituko dute.

## **II. PARTE-HARTZAILEEN IRUDI-ESKUBIDEAK**

Parte-hartzaileek Tabakalera, Artium Museoa eta/edo Jorge Oteiza Fundazio Museoko gunetan hartutako irudietan (argazkiak, bideoa, etab.) ager daitezkeela onartuko dute, gero informazioa emateko edo sustapenatarako erabiltzeko. Era berean, erabilera hori baimenduko dute, ohorerako eskubideen aurkako erabilera edo aplikazio oro alde batera utzita.



**ARTIUM  
MUSEOA**



## 12. OINARRIAK ONARTZEA

Deialdi honetan parte hartzen dutenek, bertara aurkezteagatik bakarrik, onartu egingo dituzte oinarri hauek.

Info +:

[pgaraikideak@tabakalera.eus](mailto:pgaraikideak@tabakalera.eus)

+34.943011311

[www.tabakalera.eus](http://www.tabakalera.eus)